

Soziolinguistika geo-politikoaren alorrean kokatzen da artikulu hau. Bertan, duten estatus politikoa irizpidetzat hartuz, Europan diren hizkuntzen sailkapena egiten da, beren hedapen geografikoa eta demografikoa azalduz. Breton-ek hiru kategoria bereizten ditu: Estatu-mailako hizkuntzak, Azpi-estatu mailako hizkuntzak eta Estatu-mailarik gabeko hizkuntzak.

EUROPAKO ESTATU-MAILARIK GABEKO HIZKUNTZAK: AGIRI GEOPOLITIKO ETA DEMOGRAFIKOA

Roland Breton

Geografia katedradun irakaslea

Pariseko 8. auzotegiko Unibertsitatean (Vincennes-Saint Denis)

Itzultzailea: Aitor Renteria

Europako hizkuntzak, hiztun kopuruari zein kultur garapenari dagokienez, zinez ezberdinak dira, eta gauza bera gertatzen da bakoitzaren estatusari begira. Azken honi dagokionez, bereizketa garrantzitsua dago hizkuntza «ofizialak» eta «nazionalak» —bi adjektiboak ez baitira beti esanahi berekoak— eta gaur egun «gutxiago hedatuak» izenez ezagutzen diren hizkuntzen artean. Are gehiago, azken hauen artean «herrialde-mailako hizkuntzak» izenez ezagutzen direnak bereizi beharko dira, eta hauek toki jakin batzuetan «Estatu-mailako hizkuntzaren» edo «azpi-estatu mailako» funtzio ofiziala eskuratu eta hizkuntza nazionalaren heineko izatera iritsi badira ere, herrialde-mailako hizkuntza gehienak oinarritzko onurabideetatik at gelditzen dira, eta ez dira «estatu-mailako hizkuntzatzat» hartzen.

Estatu-mailako hizkuntzen zerrenda labur bat egin ondoren, «estatu-mailarik gabeko hizkuntzak» eta «azpi-estatu mailako hizkuntzak» aipatuko ditugu hemen bereziki, hots, Estatuaren adierazpen ez diren edo tokian tokiko adierazpena baizik ez diren hizkuntzak. Europa eremuko hizkuntza «autoktonoak» soilik hartuko ditugu kontuan, maila transurrialarrean, giza eta lurralde jarraipenaren zentzu zabalean, hau da, azterketa Itsaso Beltzean, Kaukasooan eta Asia erdiko estepetan amaituz, eta Europako zen-

bait Estatuk itsasoz haraindik dituzten menpeko lurraldeak kanpoan uzten ditugularik. Ikuspegi honetatik alegia, alde batetik beste zenbait kontinentetatik heldutako etorkinek hitz egiten duten hizkuntza «ez-europar» bazter utzi behar ditugu, eta bestetik, gauza bera egin behar zenbait hizkuntza europarrekin: jatorrizko herrialdeetan mintzatzen dira edo etorkinek hitz egingen dute, Estatu batean «gutxituak» izan daitezke, nahiz eta aldi berean, beste Estatu batean Estatu-mailako hizkuntzaren onura-bideak eskuratu. Hizkuntza hauek toki jakin batean mehatxaturik egon badaitezke ere, ez daude desagertzeko zorian, Estatuko sustengurik ez duten hizkuntzei gertatzen zaien bezala, eta azken hauek dira, hain zuzen, gaurkoan gure arreta jasoko dutenak. Ikuspegi honetan, gorako edo beheko joera kontuan hartuz, bakoitzari dagokion egoera zehaztuko da, ama-hizkuntzatzat dutenen kopuruak aipatuz, 1995-2.000 bitarterako eta Europa osorako (Milioitan [M.] zein gizabanakotan).

ESTATU-MAILAKO HIZKUNTZAK

1996ko Europan 31 hizkuntza baizik ez dira, aldi berean, «nazional» eta «ofizialtzat» hartzen, eta bi baldintza horiek betetzen dituztelarik, maila guztietan erakutsiak dira eta instituzio publikoek erabiltzen dituzte: bost hizkuntza erromaniko (portuges 10 M., gaztelania 27 M., frantsesa 58 M. (okzitaniarra barne), italiarra 55 M. eta errumania 27 M.); 7 hizkuntza germaniar (ingeleza 60 M., nederlandera 21 M., alemaniera 96 M., daniarra 5 M., suediera 9 M., norbegiera 4 M. eta islandiera 0,3 M.), 10 hizkuntza eslaviar (esloveniera 2 M., serbiera-kroaziera 18 M., mazedoniera 2 M., bulgariarra 9 M., eslovakera 8 M., txekiera 10 M., poloniera 38 M., ukrainiera 39 M., bielorrusiera 7 M. eta errusiera 165 M.) 2 hizkuntza baltiar (lituaniera 4 M. eta letoniera 2 M.), beste 2 hizkuntza indoeuropar (albaniera 5 M. eta grekoa 11 M.), suomiera-hungariarra saileko 3 hizkuntza (suomiera 5 M., estoniera milioi bat eta hungariarra 14 M.) hizkuntza altaiko bakarra (turkiera 40-50 M., batez ere Europaz kanpo) eta hizkuntza semitar bakarra (maltera 0,4 M.).

Aurreko horiek ez bezala, hiru «nazio-hizkuntza» daude Estatuko egiturek sistematikoki erabiltzen ez dituztenak: bata zeltiarra, irlandera (80.000 hiztun), bigarrena erromanikoa, erromantzea (50.000) eta hirugarrena alemaniar dialekto bat, luxenburgera (0,3 M.). Hiru hizkuntza hauek «herrialdeko» hizkuntzaren estatusa dute, era berean estatu-mailako hizkuntzari loturik daudela. Herrialde-mailan administrazioan eta hezkuntzan erabiltzeko lehentasun berak eskuratu dituzte. Feroiera (50.000), katalanera (10 M.) eta euskara (Milioi bat). Hemen ez da agertzen inutkitut hizkuntza, Kalaatik Nunaat-eko (Groenlandia) 60.000 inuit-ek hitz egiten duten hizkuntza, geografikoki ez baita Europan kokatzen. Beraz, ildo honetatik beste sei Estatu-mailako hizkuntza zenbatu daitezke Europan, orotara hogeita hamazazpi hizkuntzatara helduz.

Honez gain txetxeniera (0,95 M.) dugu, zeina Txetxeniak Errusiako Federakuntzako partaidea izateko agiria izenpetu arte Estatu-mailako hizkun-

«1996ko Europan 31 hizkuntza baizik ez dira, aldi berean, nazional eta ofizialtzat hartzen, eta bi baldintza horiek betetzen dituztelarik, maila guztietan erakutsiak dira eta instituzio publikoek erabiltzen dituzte»

**«Hiru nazio-hizkuntza
daude Estatuko egiturek
sistematikoki
erabiltzen ez
dituztenak: bata
zeltiarra, irlandera
(80.000 hiztun),
bigarrena erromanikoa,
erromantzea (50.000)
eta hirugarrena
alemaniar dialekto bat,
luxenburgera (0,3 M.)»**

tza gisa zenbatu behar baita, hogeita hamazortziko azken kopurua eginez.

AZPI-ESTATU MAILAKO HIZKUNTZAK

Oraindik beste bost hizkuntza gelditzen dira, nolabait «herrialdeko» ofizialtasuna ukanik ere, erabilpen murriztagoa dutenak, alegia, ez dutenak Estatuko herrialdeko egituretan hizkuntza nazionalaren pareko tokirik hartu. Galego-portugesa dialektoa (2,8 M.) dugu Espainian, mendebaldeko friseria Herbeheretan (0,5 M.) eta gaeliera (0,6 M.). Egokia litzateke ere maila honetan kokatzea Errusiako Federakuntzan «bildurik» dauden errepubliketako hizkuntzak, zeren eta hizkuntza hauek teorikoki «nazionalak» badira ere, beti jasan baitute «gutxituaren» egoera Estatuko administrazio- eta hezkuntza-egituretan.

Errusian, botere sobietarrak nazio anizdun eta hizkuntza anizdun tradizioa ezarri zuen indarrean, baina agerikoa da gaur egungo errepublika federatuen hizkuntzek (Sobiet Batasun ohia eta Herrialde Autonomoak) tokian tokiko garapen murrizta baino ez dutela ezagutu, hezkuntza-sailleko maila apalenetan. Errusierarekiko lehian ez dute inoiz egiazko «Estatu-mailako hizkuntzaren» eginkizunik eskuratu, eta Batasuneko Errepubliketako hizkuntza zaharrenak ere ez ziren holakorik lortzera iritsi. Adibide gisa, tatarrrera, Errusiar Federakuntzako bigarren hizkuntza: sei milioi hiztun ukan arren, unibertsitate bakarra ere ez dauka. Beraz, 1992an Federakuntza osatzeko Hitzarmena izenpetzea onartu zuten 20 errepubliketan, 38 hizkuntza daude, nazionalak deritzotenak, estatus mailan, ofizial mailan bederen. Baina hauen ahalak zinez ezberdinak dira errealtatean.

Hona hemen hizkuntza hauen sailkapena, herrialdearen tamainaren eta hiztun-kopuruaren arabera:

- Zazpi hizkuntza Errusia zentral edo iparraldean: tatarrrera (6 M.), txuvakiera (1,5 M.), baxkirera (Milioi bat), mordviera (0,8 M.), udmurtiera (0,55 M.), mariera (0,55 M.), komiera (0,35 M.).

- Zazpi Kaukasoon: osetiera (0,55 M.), txerkesiera-kabardiera (0,45 M.), karatxaeve-balkarera (0,25 M.), inguxera (0,25 M.), kalmukiera (0,16 M.), abkhaze-abazera (0,15 M.), txerkesiera-adhigera (0,12 M.).

- Hamar Daghestan-en: avarera (0,6 M.), lesguienara (0,45 M.), darguenera (0,4 M.), koumikerara (0,33 M.), lakera (0,11 M.), tabassaranera (0,1 M.), noigaiñera (70.000), rutulera (20.000) tsakhurera (20.000) eta agoulera (20.000).

- Eta Uralak muga gisa hartzen ez badira, Siberiako lau hizkuntza: altaiera (70.000), khakasseera (80.000), tuviniera (0,22 M.) eta sakhaera (yakoute ohia, 0,36 M.).

Eta Errusiaren ondoan, Sobiet Batasunaren desagertzeaz geroztik, gagauzeaz turkierak (0,17 M.), Moldaviaren autonomiaz baliatuz, eta Crimeako tatarrrerak (0,25 M.), azkenik Ukrainiako herrialde honetako autonomian

ofizialki ezartzeko aukera izan duena. Beraz, hogeita hamairu azpi-estatu mailako hizkuntza agertzen zaizkigu; txetxeniera hemen berean estatu-mailako hizkuntza gisa hartua baita eskubide osoz.

ESTATU-MAILARIK GABEKO HIZKUNTZAK

Estatu-mailako hizkuntzen eta azpi-estatu mailakoen ondoren, azken hauek oro har hizkuntza ofizialarekin bat agertzen diren herrialde-mailako hizkuntza ofizialak izaten baitira, estatusik ez duten edo estatu egin-kizunetara iristeko estatus egokirik ez duten hizkuntzak agertzen dira. Sobiet Batasuna ohiko hizkuntza batzuk, nahiz eta teorikoki gutxieneko estatus nazionala ukan: adibide gisa yiddissa (0,15 M.), autonomia gorde den Herrialde bakarreko hizkuntza, nahiz eta bertan bizi ziren juduak zinez kopuru murrizta osatu (9.000); edo tsiganoen erromantxea (0,2 M.), nahiz eta hauek sekula ez duten egitura politikorik ukan (Europako gainerako herrialdeetan bizi diren beste 8 milioi tsiganoek bezala), edo Ipar Handiko 10 Distritu Nazionalak 7 hizkuntzak bezala: nenetsera (edo samoyedera, 30.000), khantera (ostyak ohiak, 14.000), mansera (Vugul ohia 3.000), evenkera (edo toungeouze, 8.000), dolganera (6.000), txuktxera (10.000) eta koryakera (5.000). Hots, 11 hizkuntza hauek ezagutza badute ere, ez dira estatu-mailako hizkuntzatzat hartzen.

Mendebaldeko Europan sei hizkuntza koka genitzake estatu-mailarik gabeko hizkuntzen artean. Hizkuntza hauek, tokian tokiko, nolabaiteko ezagutza dute, nahiz eta bere eremua mugatua egon: eskoziera (80.000) Erresuma Batuan, sorabera (60.000) Alemanian, kortsikera (0,25 M.) Frantzian, ladin (20.000) Tyroleko hegoaldean, samera (40.000) Eskandinavia-Finlandian, arumainera (0,3 M.) Yugoslavia ohian. Azkenik okzitaniera, baina Katalunian besterik ez, Aran ibarrean (6.000).

Aldiz, «herrialdeko» hizkuntza izatearen ospea duten sei hizkuntzek ez dute inolako estatu-funtziorik eskuratu eta duten ezagutzak ez du baliagarritasun praktikorik: bretoiera (0,9 M.), euskara eta okzitaniera (6 M?) Frantzian, sardoa (1,5 M.) eta friuldera (0,8 M.) Italian, mendebaldeko fri-siera Alemanian (20.000) eta kasubiera (0,1 M.) Polonian. Eta hauek dira desagertzeko arriskurik nabarmenenak dituzten hizkuntzak, «gutxien erabiltzen» (*lesser used*) direnak baitira, hala irakaskuntzan, hala komunikabideetan. Estatuak ez dute inolako garapenik sustatu edo bultzatu eta hauen geroa gizabanakoen esku gelditu da.

Azkenik, maila apalenean, bai hiztunei eta bai erakundeen interes ezari gagozkiolarik, honako hauek agertzen dira Errusian: xor hizkuntza (9.000) dugu Kuzbasse-n, 1929tik 1939ra Auzotegi nazionala ukan zuena; eta ondoren Ekialde urruneko edo Ipar Handiko herri txikien hizkuntzak, hamabi bat orotara. Hauetariko bakoitzak ehun eta mila hiztun artean baizik ez ditu, orotara 8.000 baino gutxiago: nivkh, selkoup, oultche, itelmen, oudégué, tchouvantze, gnasai, youkaguir, kète, orochon, tofalar, néguidal, yentse, orok. Eta geografikoki askoz ere hurbilago, Errusiako

**«Tatarrera, Errusiar
Federakuntzako
bigarren hizkuntza: sei
milioi hiztun ukan
arren, unibertsitate
bakarra ere ez dauka»**

**«Gaur egun sendo eta
bizkor agertzen diren
Estatu-mailako
hizkuntza guztiek ez
dituzte hamarnaka
milioi hiztun:
islandierak 300.000
ditu, estonierak milioia
eta letoierak eta
eslovenierak bi
milioiekin argi eta garbi
erakutsi dute bizirik
irautearen muga aski
behera ezar daitekeela»**

—vepse (6.000) eta ingre (300)— eta Letoniako —live (100)— hiru hizkuntza suomierak. Azken hauek, gaur egun gelditzen zaizkien hiztun zaharrak desagertu ahala, garaiotan Europan desagertu diren hizkuntzen artean aipatuko dira: mannois eta dalmato-erromanera (XX. mendea), kornikera (XIX. mendea), gotikoa eta polabera (XVIII.a), jatwige, cure, borusse (XVII.a).

ERAKUNDE ETA KOPURUEN BEHIN-BEHINEKO BILDUMA

Europako hizkuntzen berrikusketa honek geografikoki osotasun bat biltzen du, alegia, erakunde mailan hein batean edo bestean biltzeko ahaleginetan ari da: Europar Batasuneko 18 estatuak, Europako kontseiluko 39ak, gehi Strasburg-eko bi egitura hauetara sar daitezkeenak. Baina Itsaso Beltzaren, Kaukasoaren eta Asia Erdialdeko estepen hegoaldera dau den herriak ez ditugu europartzat hartu, nahiz eta Kadana edo Estatu Batuak bezala, Heltsinkiko hitzarmenetik sortu den Europako Segurtasun eta Elkarlanerako Erakundeko (OSCE) kideak izan. Beraz, Europa honetan, Itsas Bareko beste muturreraino doanean bederen, laburbilduz, hizkuntzen egoera hau antzeman daiteke:

- Iharduera osoko 29 hizkuntza nazional edo «Estatu-mailako hizkuntza», 707 milioi hiztunekin (295 hizkuntza eslabierakoak, 195 germanierakoak, 177 erromanerakoak, 20 suomiera-hungarierakoak, 16 greko-albanierakoak, 6 baltikoak eta bakar bat semitarra),

- 6 hizkuntza, nazionalak izan daitezkeenak, baina instituzionalizazio murriztekoak (irlanderak, erromantxea eta luxenburgerak), edo herrialde-mailakoak, baina iharduera osoa dutenak (feroierak, katalanera eta euskara), beraz «estatu-mailako hizkuntzatzat» har genitzakeenak. Hauez gain, txetxeniera; orotara 12 milioi hiztunetik gora.

- Autonomia handi edo txikiagoa duten «azpi-estatuko» 31 lurralde-hizkuntza: 3 mendebaldean (galegoa, friserak eta gaeliera), 28 Errusiako Federakuntzan, bat Moldavian eta bat Ukranian, orotara 18 milioi hiztun. Eta nabariki «estatu-mailarik gabeko hizkuntzak diren» beste 36. Honela bana daitezke:

- 9 Errusian. Nahiz eta «Nazionalak» deitu, eta batek ezik gainerakoek lurralde autonomoak ukan, ez dute abantzu onurabide ofizialik eta milioi erdi hiztun baino gutxiago dute.

- Europako mendebaldeko 6 hizkuntzek nolabaiteko instituzionalizazio ofiziala dute beren lurraldeetan, milioi bat hiztunetik beherakoak.

- Beste sei daude Europako mendebaldean, baino inolako instituzionalizazio ofizialik gabekoak, lurraldean 9 milioi hiztun inguru bilduz.

- Errusiako mugetako beste 16 hizkuntza: hein apalenera erortzen utzi dituzte, eta milaka edo ehundaka hiztun baizik ez dituzte, orotara 25.000 baino gutxiago.

HIZKUNTZ ANTOLAKUNTZAREN NONDIK NORAKOAK

Hizkuntzaren antolaketa eta garapenaren ikuspuntutik, esan genezake 719 milioi europarrek bere ama-hizkuntza babesturik, lagundurik eta erakundeturik ikusten dutela eta hauek bakoitza 38 «Estatu-mailako hizkuntzetako» bat bilakatzea heldu dela. Aldiz, europarren gutxiengo bat osatzen duten 30 milioi inguru biztanlek beren hizkuntzaren estatusaren hobekuntza bat ukan beharko lukete. Azpi-estatu mailako egituretako 33 hizkuntzek, orotara 18 milioi hitzun, berebiziko bultzada hartu beharko lukete gaur egungo egitura politikotik askatasuna eta behar dituzten ahalak eskainiko bazaizkie. Baina estatu-mailarik gabeko 37 hizkuntzen eginkizuna, hamabi milioi hitzun inguru bilduz, askoz ere latzagoa da: laguntza gisa, hizkuntza hauen estatusa kualitatiboki aldatzeaz gain (oro har ez zaie beren kultur balioa aintzat hartzen), hauen korpusa ere zaindu beharko litzateke, luzaroan bertan behera utziak izan baitira, orekarik gabeko elebitasun baten menpe. Eta honi guztiari beste ezaugarri larri eta izugarri bat erantsi behar zaio: beharbada, hitzunen kopuruak desagertzearen ataria zeharkatu du behin betirako.

Izan ere, estatusaren eta korpusaren arazoaz gain, kopuruaren arazoa ere ezin da gutxietsi, baina azken honek ez luke trabatu behar litekeen ekimena. Oroit dakigun gaur egun sendo eta bizkor agertzen diren Estatu-mailako hizkuntza guztiek ez dituztela hamarnaka milioi hitzun: islandierak 300.000 ditu, estonierak milioia eta letoierak eta eslovenerak bi milioiekin argi eta garbi erakutsi dute bizirik irautearen muga aski behe-
ra ezar daitekeela. Honetarako baitaezko baldintza, bistan dena, talde kontzientzia zein hizkuntzaren kultur balioan atxikitzen den konfiantza azkarra izatea.

Borrokan dirauten talde etnikoen eta herrien artean, txetxeniarrak ez dira milioira iristen. Okzitaneraz mintzo zirenak, behetik jota, sei bat milioi izango ziren, tatarak bezala, hots, suomieraz, albanieraz edo eslobakeraz mintzo direnak baino gehiago. Sardieraz edo txuvakieraz mintzo den milioi eta erdia, baxkireraz mintzo den milioia edo bretoieraz ari diren 900.000ak, kelteraz hitz egiten duten 600.000 pertsonak eta frioleraz mintzo diren 500.000ak, beharbada malteraz edo luxenburgeraz mintzo diren 400.000 biztanleak baino gutxiago senti daitezke. Egia da ere Errusiako hizkuntza gutxituen artean askok ez dutela milaka hitzun gutxi batzuk baino. Baina konstituzioaren bidez erromantxeari eman zaion sustapena, 1996an 50.000 hitzun duen hizkuntzari buruz egindako erreferendumean erabaki bezala, ez da Suizak bakarrik egin dezakeen handikeria. Dena den, interesdunek bere erabaki beharko lukete.

Gure garaian hizkuntza baten instituzionalizazio gastuak —Estatu-mailako hizkuntza izatera heltzea— errazki zenbatu daiteke administrazio, hezkuntza, eta komunikazio-mailan. Kultura baten, gizarte baten desagertpena ezin daiteke zenbakietara mugatu, gizartearen aniztasunean eragiten duen kaltea kontuan hartuz.

«Okzitaneraz mintzo zirenak, behetik jota, sei bat milioi izango ziren, tatarak bezala, hots, suomieraz, albanieraz edo eslobakeraz mintzo direnak baino gehiago»